

Adiskidetzearen ospakizuna familiarentzat¹:

Prestatu beharrekoak...

Ospakizuna egingo den otoizlekua, kapera edo eliza girotu. Erabiliko ditugunak: Kartela Aita Onaren eszenekin; otzara paperak botatzeko, su-ontzi edo antzekoa erretzea pentsatzen bada, kartulinak, guraizeak, margoak...

Hasi egingo gara...

Ospatzaileak ongi etorria adieraziko die partaideei (heldu eta haurrei) eta egingo dugunaren berri emango die.

Isiltasuna eta barruko entzutea ahalbideratzeko, erlaxatzeko ariketa batzuk egingo ditugu lehenik eta behin: jarrera eroso bilatu, gure gorputzaren atalez jabetu, buruko zarata guztiak uxatu, arnasa patxadaz hartu... musika gozoa jarrita edukitzea lagungarri izan daiteke.

Barruko isiltasunari eutsiz, nagusi eta txikiok Aita Onaren kontaketa (Lk 15, 11-32) – seme xahutzailearen parabola bezala da ezaguna- entzungo dugu. Kontaketa pasarteen kartela jarriko dugu, arreta erakartzeko.

Aita Onaren parabola

Gainera, esan zien: «Gizon batek bi seme zituen. Gazteenak esan zion aitari: "Aita, emadazu dagokidan senipartea". Eta aitak ondasunak banatu zizkien. Handik egun gutxira, seme gazteenak, zituen guztiak bildurik, urrutiko herrialde batera alde egin zuen eta han, galdukerian biziz, ondasun guztiak jan. Dena xahutu zuenean, gosete ikaragarria gertatu zen inguru hartan eta estu aurkitzen hasi zen. Orduan, herrialde hartako gizon batengana joan zen morroi, eta hark bere sailetara bidali zuen txerrizain. Txerriek jaten zuten ezkurrez asetzeko gogoia ematen zion, ez baitzion inork jaten ematen. Orduan, pentsatzen jarriarik, bere baitan esan zuen: "Zenbat langile gure aitarenean nahi adina ogi eta gehiago dutela, eta ni hemen goseak hiltzen! Jaiki, aitarengana joan eta esango diot: Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure kontra. Ez dut gehiago seme-izenik merezi. Har nazazu zeure langileetako bat bezala". Jaiki eta aitaren etxera abiatu zen. Oraindik urruti zegoela, ikusi zuen aitak eta errukitu egin zen; eta, lasterka joanik, besarkatu eta musuka hasi zitzaion. Semeak esan zion: "Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure kontra. Ez dut gehiago zure seme-izenik merezi...". Aitak, ordea, esan zien morroiei: "Ekarri bizkor jantzirik onena eta jantziozue, ipiniozue eraztuna eta

¹ Ez da sakramentu-ospakizuna. Baldintzak betez gero... adiskidetzearen sakramentua ospatzea da egokiena.



jantzi oinetakoak; ekarri zekor gizendua eta hik; egin dezagun festa-otordua; zeren seme hau hilda bainuen eta piztu egin zait, galdua nuen eta aurkitu egin dut". Eta festa hasi zuten. Seme zaharrena soroan zen. Etxerakoan, hurbildu ahala, soinua eta dantzak sumatu zituen. Eta, morroi bati deiturik, zer gertatzen zen galdetu zion. Hark erantzun: "Zure anaia etorri da eta zekor gizendua hiltzeko agindu du zuen aitak, semea onik bereganatu duelako. Biziki haserretu zen anaia eta ez zuen sartu nahi. Atera zen aita eta erreguka hasi zitzaion. Baina hark erantzun zion aitari: "Hainbeste urte da zure agindu bat ere sekula huts egin gabe zerbitzaten zaitudala, eta ez didazu egundaino antxume bat ere eman, lagunekin festa egiteko; eta, horko zure seme hori, zure ondasunak emagalduekin jan dituen hori, etorri dela-eta, zekor gizendua hil duzu". Aitak erantzun zion: "Seme, zu beti nirekin zaude, eta nire guztia zeurea duzu! Baina egoki zen poztu eta festa egitea, zure anaia hau hilda baikenuen eta piztu egin zaigu, galdua genuen eta aurkitu egin dugu"».
(Lukas 15, 11-32)

Kontaketa entzun eta isilunea egingo dugu musika jarrita dela, testuak durundi egin dezan gure barruan. Tarte horretan, zera eskatuko diegu hurrei: begira diezaietela kartelego binetei eta saia daitezela kontaketa beren baitarako berregiten.

Bost-zazpi minuturen buruan, ospatzaileak hurrei hitz egingo die lehenik eta behin. Boz goraz, kartelaz baliatuz, entzun berri dugun kontaketa gogoratuko dugu: aita zain dago eta besarkatu egiten du bueltan den semea; aldi berean, asko maite du berekin etxean den semea ere. Jainkoak beti maite gaitu eta barkatzen gaitu, guk egiten ditugunak oso itsusi edo tristeak badira ere... Horregatik diogu "Jainkoaren maitasuna zoragarria" dela. Azkenean abestia ikasi eta kantatu egingo dugu (amaieran dago letra eta audio-esteka).

Haurrak gauden lekuko bazter batera joango dira esker ona prestatzera.

Nola irudikatuko dugu Jainkoak digun maitasuna? Bihotza marraztuko dugu eta barruan 'eskerrik asko' hitza idatziko. Hurrek oraindik idazten ez dakitenez, laguntzaileak lagunduko die edo ariketa hau gurasoekin batera egingo dute.

Helduei dagokienez, ospatzaileak kontaketa barneratzen lagunduko die, hausnarketa "eraginez"... ondorengo edo antzeko hitzak erabiliz. Hausnarketa idatziz jaso daiteke.

Seme xahutzailearen parabola bezala da ezaguna da idazki hau, baina Jesusen asmoa, aitaren onberatasuna azpimarratzea da.

Aitak bi semei dien maitasunaz ohartuko gara. Aitak, gauza guztien gainerik maite ditu bi semeak. Gauza bera gertatzen da gure Aita Jainkoarekin ere. Nahiz eta seme-alabek gaiztakeriak egin, aitak beti barkatzen ditu eta poztu egiten da elkarrekin daudenean. Jainkoaren errukia, giza zuzentasunaren kalkuluetatik harago doa.



Idazki honek, alde batetik, doan eskaintzen den barkamenaren pozaz gozatzeko eta poztasun hori zabaltzeko dei egiten digu. Eta, bestetik, gure begirada, gure bizitza, Jainkoarengana zuzen dezagula, Jainkoarengandik eta anai-arrebengandik aldentzen gaituen guztia aitortuz.

Gure bizitza pertsonalean, gure familia bizitzan, zein egoeratan behar dugun barkamena antzematean datza. Gure jarrerez, eguneroko bizitzari aurre egiteko erez, gure jokaerez... jabetu eta hausnartu: gure anai-arrebengandik eta, ondorioz, Jainkoarengandik aldentu egiten gaituzte ala horiengana hurbildu?

Gogoratzen dugu barkatu dugun ala barkatu gaituzten egoeraren bat? Zein egoeratan gertatu zen hori? Sentitu izan dugu noizbait barkamenaren esperientzia sendatzailea?

Nola ulertzen dugu Aitak bere bi semeekiko duen jarrera? Zer diosku jarrera horrek...?

Bakarka hausnartu –denbora nahiko utzi, baina ez dadila tarte luzeegia izan-ondoren, altxatu eta idatzitako guztia bota edo erre egingo dugu. Papera botatzean, hauxe esango dugu ozen: *“Eskerrik asko, Aita Jainkoa, proposatzen diguzun maitasuna egia bihurtzeko beste aukera bat emateagatik”*. Lauzpabostek paperak bota eta hori esateaz batera, abestu egingo dugu: *“Eskerrik asko, Jauna”*.



Pausagune baten ostean, hurrei sartzeko esango diegu.

Hurrek, Jainkoak egundoko maitasuna digula kontatuko diete gurasoei. Horrexegatik marraztu eta margotu dute bihotza eta barruan ESKERRIK ASKO jarriko dute –aurretik egin ez badute.



Elkarrekin, "El amor de Dios es maravilloso", edota "Eskerrik asko Jauna" abestuko dugu. Hemen entzun daiteke:

https://www.youtube.com/watch?v=cq9QKQcso_c

El amor de Dios es maravilloso.

El amor de Dios es maravilloso.

El amor de Dios es maravilloso

¡Grande es el amor de Dios!

Tan alto que no puedo estar más alto de Él.

Tan bajo que no puedo estar abajo de Él

Tan ancho que no puedo estar afuera de Él.

¡Grande es el amor de Dios!



**Bilboko
Elizbarrutia**
DIÓCESIS DE BILBAO

Fede-zabalkunde eta
Katekesirako Ordezkaritza
Delegación de
Anuncio y Catequesis

